



## *“Nicolás Guereniain” Irungo Errepublikarrak*

Centro Cívico Palmera-Montero, local 4  
Leandro Agirretxe, 1 - 20304 Irun  
Tel.: 669 075423 – P.K.: 10008  
www.asociacionrepublicanairunesa.org  
140431@asociacionrepublicanairunesa.org

Irunen, 2017ko Maiatza

Iaz hainbat elkartek eta alderdi politikoak eskaera bat egin genion Udalari erakunde publiko den aldetik EZ parte hartzeko ekainaren 29 eta 30eko erlijio ekitaldietan, eta ekitaldi horiek ez sartzeko jaietako programa ofizialean.

Aipatutako idazkian hau adierazten zen: *“jakitun gara denboran zehar eta era tradizionalen Udalak instituzioa den aldetik parte hartu izan duela San Pedro eta San Martzial egunetako erlijio ekintzetan, eta ekintza horiek izan direla hiriko jaietako egitarauaren parte”.*

Hori egia izanik, badaude aurrekariak; hain zuzen ere, erakundeek horrelako ekitaldietan parte hartzeari utzi zioten garaietatik, preseski, gobernuak aurrerakoiak ziren garaietakoak. Bestalde, konprobatu ahal da *“tradizio”* hori berreskuratu zen garaia –halabeharrez- bat etorri zen gobernu totalitarioekin, eliza katolikoa boteretik oso gertu zegoen haiekin. (Primo de Riveraren diktadura, Francoren diktadura...).

Diktadorea hil eta trantsizioaren ondoren –agian, ekitaldi horiek sustraitua egon zirelako populazioaren zati batean denboraldi horretan-, ez da planteatu erakundeak erlijio ekintzetan parte hartzeari uzteko aukera, baina gaur egun garaiak aldatu egin dira eta herritarren sektore zabal batek ez katolikotzat hartzen du bere burua.

Iazko idazkian hau ere adierazten zen: *“Kontuan izanda legearen aurreko berdintasunaren printzipioa oinarrizkoa dela demokrazian, erakunde demokratiko oro derrigortuta dago printzipio hau zehatz-mehatz errespetatzera, dauden erlijioen artean haietako baten aldeko tratua ekar dezaketen jarduketa edo egoera guztiak ekidinez, baita fededun ez diren horiekiko tratu diskriminatzailea ere. (Konstituzioaren 16. artikulua)”*

Jakin badakigu honelako erabaki batek arbuioa eragin dezakeela populazioaren zati baten aldetik, baina -gure ustez- legea betetzeak lehentasuna dauka edozein erregimen demokratikotan. Bestalde, atzera begiraturaz, erakunde gisa ekainaren 29 eta 30eko erlijio ekitaldietan parte hartzeari utzi zitzaionean, ez zen inolako haustura sozialik gertatu; izan ere polemika bat prentsa mailan besterik ez zen gertatu.

Horregatik, “Nicolas Guereniain” Irungo Elkarte Errepublikanoaren aldetik, Udaleko talde guztiei San Pedro eta San Martzial egunetako mezan EZ parte hartzeari buruzko eztabaida bat irekitzeko ausardia eskatzen diegu, eta meza horiek ez agertzeko jaietako programa ofizialean, eta erlijio sinbolo guztiak kentzeko ekitaldi ofizialetan.

Nicolás Guereniain Irungo Errepublikarrak  
Presidentea  
Florentino Zamora



## *Asociación Republicana Irunesa "Nicolás Guerenđiain"*

Centro Cívico Palmera-Montero, local 4

Leandro Agirretxe, 1 - 20304 Irun

Tel.: 669 075423 – C.P.:10008

[www.asociacionrepublicanairunesa.org](http://www.asociacionrepublicanairunesa.org)

[140431@asociacionrepublicanairunesa.org](mailto:140431@asociacionrepublicanairunesa.org)

Irun, mayo de 2017

El pasado año diversas asociaciones y partidos políticos hicimos una petición al Ayuntamiento solicitando la NO participación como institución pública en los actos religiosos de los días 29 y 30 de junio y la no inclusión de estos actos en el programa oficial de fiestas.

En dicho escrito se decía que *"Somos conscientes que a los largo del tiempo y de forma tradicional el Ayuntamiento como institución ha participado en los actos religiosos de San Pedro y San Marcial y estos actos ha formado parte del programa de fiestas de la ciudad."*

Aun siendo esto cierto, tenemos antecedentes de las épocas en las que las Instituciones dejaron de participar en estos actos y fue precisamente cuando los gobiernos eran de corte progresista. También se puede comprobar que las fechas en las que se volvió a recuperar esta *"tradicción"* casualmente coincidió con gobiernos totalitarios en lo que la iglesia católica estaba muy cerca del poder. (Dictadura de Primo de Rivera, dictadura de Franco....).

Después de la muerte del dictador y tras la transición, quizás debido al arraigo que han tenido estos actos en una parte de la población durante este tiempo, no se ha planteado la posibilidad de dejar de participar en actos religiosos por parte de la Institución, pero hoy en día los tiempos están cambiando y vemos como hay un sector amplio de la ciudadanía que se declara no católica.

En el escrito del pasado año también se decía: *"Teniendo en cuenta que el principio de igualdad ante la ley es básico en la democracia, toda institución democrática está obligada a respetar escrupulosamente este principio, evitando cualquier actuación o situación que suponga un trato de favor sobre cualquiera de las religiones existentes, o un trato discriminatorio sobre los no creyentes. (Artículo 16 de la Constitución)"*

Sabemos que una decisión de este tipo puede generar un rechazo por una parte de la población pero pensamos que el cumplimiento de la ley es prioritario en cualquier régimen democrático. También y echando la vista atrás, comprobamos que cuando se dejó de asistir como Institución a los actos religiosos del 29 y 30 de junio, no tuvo lugar en la ciudad ningún tipo de fractura social, poco más que una polémica a nivel de prensa.

Por todo ello, desde la Asociación Republicana Irunesa "Nicolás Guerenđiain" solicitamos a todos los grupos del Ayuntamiento, la valentía para abrir un debate sobre la NO participación como Institución en la misa de San Pedro y la de San Marcial y que éstas no aparezcan en el programa oficial de las fiestas, eliminando cualquier tipo de simbología religiosa en los actos oficiales.

Asociación Republicana Irunesa Nicolás Guerenđiain

Presidente

Florentino Zamora